

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Trantsizio Berdea dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dira, 2024 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatorias del programa de subvenciones Transición Verde para el año 2024.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: Bizkaia, talentuarekiko konpromisoa; Ekintzailtza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren motor gisa; Industria eta zerbitzu aurreratuak, lehiakortasun jasangarrirako apustu indartsuagoa; Bizkaia orekatua eta kohesionatua; eta Bizkaia irekia eta erakargarria; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Trantsizio Berdea dirulaguntza-programa arautzea da 2024 urterako, eta horren helburua da Bizkaiko enpresek garapen ekonomikorako eta giza garapenerako funtsezko erronka bati aurre egin diezaioten bultzatzea, hau da, ekonomiaren deskarbonizazioa eta ingurumen-inpaktu minimoko ekoizpen- eta kontsumo-ereduaren aldeko hautua.

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: Bizkaia, compromiso por el talento; Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia; Industria y servicios avanzados, una apuesta reforzada por la competitividad sostenible; Bizkaia equilibrada y cohesionada; y Bizkaia abierta y atractiva; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto regular el programa de subvenciones Transición Verde para el año 2024 cuya finalidad es impulsar que las empresas de Bizkaia afronten un reto fundamental para el desarrollo económico y humano, como es la descarbonización de la economía y la opción por un modelo productivo y de consumo de mínimo impacto ambiental.





Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen ekintza bat aurreikusten du dekretu honen bidez diruz lagundu daitekeen proiektuak bermatzeko, eta Bizkaiko Lurralde historikoaren aurrekontu orokorretan urtero esleitzen dira beharrezkoak diren kredituak eraginkorrak egiteko. Dirulaguntzen ekintza hori “Industriako deskarbonizazio-proiektuei laguntzea” deitzen da eta “Industria eta zerbitzu aurreratuak: lehiakortasun iraunkorraren aldeko apustu indartua” izeneko helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, eta helburu horren barruan, “Bizkaiko enpresetan berrikuntza sustatuta, lehiakortasuna hobetzeko proiektuak garatzeko laguntza” izeneko helburu zehatza.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Promoción Económica prevé una acción subvencional destinada a apoyar los proyectos objeto de subvención en este decreto, y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario. Dicha acción subvencional está denominada “Apoyo a proyectos de descarbonización en la industria” y contribuye a la contribución del objetivo estratégico “Industria y servicios avanzados: una apuesta reforzada por la competitividad sostenible” y, dentro de él, del objetivo específico “Apoyar el desarrollo de proyectos de mejora de competitividad a través de la innovación en empresas de Bizkaia”.

Ingurumenaren babesarekin bateragarria den garapena lortzeko konpromiso eta araudi ugari daude, maila guztietan, klima-aldaketa arintzeari eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteari lotutakoak, bereziki. Nazioartean, CPO 21 Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (Paris, 2015eko abendua), asmo handiko konpromisoak hartu zituzten, berotegi-efektuko gasak 2030erako murrizteko. Europako Batzordeak, bestalde, Europako Itun Berdea izeneko 2019ko abenduaren 11ko Komunikazioan, estrategia berri bat ezarri zuen, Europar Batasuna gizarte ekitatibo eta oparo bihurtzeko; gizarte bat, ekonomia modernoa izango duena, baliabideak modu efizientean erabiliko dituen, lehiakorra izango dena, 2050erako BEGen emisio garbirik edukiko ez duena, eta bere hazkunde ekonomikoa baliabideak erabiltzearen menpe jarriko ez duena. Europa mailan ere, Europako Batzordeak, COVID-19ak sortutako krisi globalaren ondoren, abian jarritako Next Generation EU Europarako suspertze-planeari,

Existen numerosos compromisos y normativas a todos los niveles para conseguir un desarrollo compatible con la protección del medio ambiente, particularmente ligadas a la mitigación del cambio climático y la reducción de emisiones de gases de efecto invernadero (GEI). A nivel internacional, en la Conferencia de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático conocida como COP21 de París, celebrada en diciembre de 2015, se adoptaron ambiciosos compromisos de reducción de GEI para el año 2030. La Comisión Europea, por su parte, en su Comunicación de 11 de diciembre de 2019, titulada El Pacto Verde Europeo, estableció una nueva estrategia destinada a transformar la Unión Europea en una sociedad equitativa y próspera, con una economía moderna, eficiente en el uso de los recursos y competitiva, en la que no habrá emisiones netas de GEI en 2050 y el crecimiento económico estará disociado del uso de los recursos. También a nivel europeo, en el plan de recuperación para Europa Next Generation EU que ha puesto





Batzordeak adierazi du bere helburua dela Europa ekologikoago, digitalago eta erresilienteago bat eraikitzea. Euskal Autonomia Erkidegoan, aipatzekoa da 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoarena eta Klima Aldaketarena. Lege horren helburua da esparru juridiko egonkorra ezartzea, Euskadin, beranduenez 2050erako, klima-neutraltasuna lortzeko.

en marcha la Comisión Europea tras la crisis global generada por la COVID-19 la Comisión indica que su objetivo es el de construir una Europa más ecológica, digital y resiliente. A nivel de la Comunidad Autónoma Vasca es reseñable la Ley 1/2024, de 8 de febrero, de Transición Energética y Cambio Climático, que tiene por objeto establecer el marco jurídico estable para alcanzar la neutralidad climática en Euskadi a más tardar en el año 2050.

Ingurumen-jasangarritasunaren erronkaren garrantziaz jabetuta, Foru Aldundiak jarduerak egin ditu, Bizkaiko enpresei laguntzeko trantsizio berdeari aurre egiten, zenbait tresnaren bidez. Aipagarrienen artean daude ingurumen-inbertsioengatiko kenkariak, zeinek aukera ematen baitute sozietateen gaineko zergan kuota likidoari kentzeko ingurumena hobetzea dakarten aktibo finko berrietan egindako inbertsioen zenbatekoaren % 15.

Conscientes de la importancia del reto de la sostenibilidad ambiental, desde la Diputación Foral se han llevado a cabo actuaciones de apoyo a las empresas de Bizkaia para que afronten la transición verde, mediante distintos instrumentos. Entre los más destacados están las deducciones por inversiones ambientales que permiten deducir de la cuota líquida en el impuesto de sociedades un 15% del importe de las inversiones realizadas en activos fijos nuevos que impliquen una mejora ambiental.

Iraunkortasunaren, ekonomia zirkularren edo aztarna ekologikoaren minimizazioaren aldeko apustua gero eta gehiago agertzen den bektorea da gizarteetan eta merkatuetan, baina enpresek zailtasunak dituzte beren negozio-eredua paradigma berri horretara egokitzeko. Erakunde publikoek garapen jasangarria susta dezakete, enpresetan trantsizio hori sustatuz.

La apuesta por la sostenibilidad, la economía circular o la minimización de la huella ecológica es un vector cada vez más presente en las sociedades y en los mercados, pero las empresas tienen dificultades para adaptar su modelo de negocio a este nuevo paradigma. Las entidades públicas pueden fomentar el desarrollo sostenible, incentivando esta transición en las empresas.

Trantsizio jasangarria edo ekonomia zirkular eta aztarna ekologiko baxuko trantsizioa bultzatzean, detektatu diren erakunde publikoen laguntza-programak energia sortzeko teknologia jakin batzuetara edo industria-prozesuetan aldaketa teknologiko jakin batzuetara bideratuta daude. Ez da ezagutzen enpresa txikiei modu integralagoan laguntzen dien programarik, hau da, ingurumen-

En el impulso de la transición sostenible o hacia la economía circular y de baja huella ecológica, se detectan programas de apoyo por parte de las entidades públicas que están enfocados a determinadas tecnologías de generación energética o hacia determinados cambios tecnológicos en procesos industriales. No se conoce ningún programa que apoye a las empresas de reducido tamaño de un modo más





inpaktuaren metrikak sortzen laguntzen duenak eta, aldi berean, inpaktu horiek murrizten laguntzen duten inbertsioak ezartzen edo berrikuntza-proiektuak garatzen laguntzen duenik ere. Horrela, enpresek ingurumena gehiago errespetatuko duen ekoizpen-eredu baterako bidea egin dezakete.

Alde horretatik, dirulaguntza programa honek hiru laguntza-ildo ditu:

- 1) Ingurumen-eraginaren neurketa
- 2) Inbertsio berdeak
- 3) Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuak

Hirugarren dirulaguntza ildo hori Trantsizio Digital eta Berdea programaren 2022. eta 2023. edizioetan aurreikusita zegoen. 2024tik aurrera, ingurumen-jasangarritasuneko ekintzei bultzada handiagoa eman nahi zaie, eta, beraz, programa hori bi programatan banatu da – Trantsizio Digitala eta Trantsizio Berdea –, eta ingurumen-inpaktua murrizteko diruz lagun daitezkeen ekintzak handitu dira.

Trantsizio Digital eta Berdea programaren 2022. eta 2023. edizioetako planei eskainitako ildoak metatutako esperientzian oinarrituta ezabatzen da, politika publikoek eraginkortasun handiagoa izan dezaten. Hala ere, ingurumen-berrikuntzako plana duten enpresek 3. Laguntza-ildoan dirulaguntzaren intentsitate eta bolumen handiagoa eskuratu ahal izaten jarraituko dute, eta dirulaguntza gehigarria lortu ahal izango dute, proiektuan kanpoko eragile adituei laguntzeko eta enpresako plantillan teknikariak sartzeko.

integral, favoreciendo tanto la generación de métricas de impacto ambiental como la implantación de inversiones o el desarrollo de proyectos de innovación que contribuyan a la reducción de esos impactos, que abran el camino hacia un modelo productivo más respetuoso con el medio ambiente.

En este sentido, este programa de subvenciones contiene tres líneas de apoyo:

- 1) Medición del impacto ambiental
- 2) Inversiones verdes
- 3) Proyectos de innovación ambiental y economía circular

Esta tercera línea de subvenciones ya estaba contemplada en las ediciones 2022 y 2023 del programa Transición Digital y Verde. A partir de 2024 se pretende dar mayor impulso a las acciones de sostenibilidad ambiental, por lo que ese programa ha sido desglosado en dos programas - Transición Digital y Transición Verde -, y se han ampliado las acciones subvencionables dirigidas a la reducción del impacto ambiental.

La línea dedicada a planes en las ediciones 2022 y 2023 del programa Transición Digital y Verde se elimina en base a la experiencia acumulada, para una mayor eficacia de las políticas públicas. No obstante, las empresas que ya dispongan de plan de innovación ambiental seguirán pudiendo acceder, en la línea 3 de subvenciones, a una mayor intensidad y volumen de subvención, y obtener subvención adicional para el acompañamiento de agentes expertos externos durante el proyecto y para la incorporación de personas tecnólogas en la plantilla de la empresa.





Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorriz.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 61/2024 Foru Dekretuak Enpresen lehiakortasuna hobetzea, batez ere enpresa txiki eta ertainena, betiere berrikuntza, digitalizazioa eta jasangarritasuna funtsezko ardatz hartuta; industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jardura esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

El Decreto Foral 61/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas y medianas empresas, teniendo como eje fundamental la innovación, la digitalización y la sostenibilidad, el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, impulsar el proceso de internacionalización de las empresas y el apoyo a la actividad exportadora y la promoción de la cooperación empresarial.

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la





xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa.
7. Legezketasunari buruzko txostena.

Dekretu honen bidez arautzen diren laguntzak (1. laguntza-ildoak) norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, beren izaera eta helburua kontuan hartuta; Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20 artikuluan aurrez ikusita dago prozedura hori.

Diruz lagun daitekeen egitatearen izaerak ez du bideragarri egiten aurkeztutako proiektuen arteko alderaketa egitea. Diruz lagundu daitekeen egitatea ingurumen-inpaktua neurtzeko metodologia jakin batzuk zuzenean aplikatzea da. Metodologia horiek enpresako, zerbitzuko edo produktuko zenbait eremutan aplika daitezke, baina guztiak ere datu baliotsuak emateko helburuarekin, ingurumen-inpaktua murrizteko urratsak bideratzeko. Beraz, ez da bideragarria, ezta arrazoizkoa ere, jasotako eskaeren artean lehentasuna

Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.
6. Evaluación de impacto climático.
7. Informe de legalidad.

Las ayudas de la línea 1 reguladas por este decreto foral se otorgarán atendiendo a su naturaleza y finalidad por el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

La naturaleza del hecho subvencionable no hace viable un juicio comparativo entre los proyectos presentados. El hecho subvencionable es la aplicación directa de determinadas metodologías de medición de impacto ambiental, aplicables a distintos ámbitos de la empresa, servicio o producto, pero todas ellas con el objetivo de ofrecer a la empresa datos valiosos para orientar sus pasos en reducción de impacto ambiental, por lo que no es viable ni razonable establecer una prelación entre las solicitudes recibidas.





ezartzea.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita, orain 1/2023 Legegintzako Dekretua). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, hurrengo erregelamendua dela bide: 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, Europar Batasunaren

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005 (ahora Decreto Legislativo 1/2023). En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 2023/2831, de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y





Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluen ezarpenari buruzkoa.

108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

V

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onetsi ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de Promoción Económica proponer este proyecto de decreto foral.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2024ko abuztuaren 21eko bileran aztertu ondoren, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de Promoción Económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 21 de agosto de 2024

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:





Artikulu bakarra. Oinarri arautzaileak eta deialdiak onartzea.

2024 urterako Trantsizio Berdea dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdiak onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Artículo único. Aprobación de bases reguladoras y convocatorias.

Se aprueban las bases reguladoras y convocatorias del programa de subvenciones Transición Verde para el año 2024 cuyo texto se incluye a continuación.

Xedapen gehigarri bakarra. Izaera pertsonaleko datuen babesia.

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak

Disposición adicional única. Protección de datos de carácter personal.

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de





direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión (“derecho al olvido”), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak ematea.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

Disposición final primera. *Habilitación de facultades.*

1. Se faculta a la diputada foral de Promoción Económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Promoción Económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación





presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Promoción Económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onartzen diren deialdien laburpena.

1. Las bases reguladoras aprobadas por este decreto foral entrarán en vigor, una vez publicadas en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, el día que se publique en dicho boletín el extracto de las convocatorias que se aprueban conjuntamente.

2. Foru dekretu honen bidez onartutako deialdiek ondorioak izango dituzte Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratzen den egunetik aurrera.

2. Las convocatorias aprobadas por este decreto foral tendrán efectos desde el día que se publiquen en el “Boletín Oficial de Bizkaia” el extracto de la convocatoria.

Bilbon, 2024ko abuztuaren 21ean

Dado en Bilbao, a 21 de agosto de 2024

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua / La diputada foral de Promoción Económica.
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

TRANSIZIO BERDEA
DIRULAGUNTZA-PROGRAMA
ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA
DEIALDIAK 2024 URTERAKO

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIAS DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES TRANSICIÓN VERDE
PARA EL AÑO 2024.

Aurkibidea:

Índice:

I. TITULUA Xedapen orokorrak

TÍTULO I Disposiciones generales

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

2. oinarria. *Definizioak*

Base 2. *Definiciones*





3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

**I. KAPITULUA 1. ildo: Ingurumen-
eraginaren neurketarako dirulaguntzak**

**CAPÍTULO I Línea 1: Subvenciones para
medición del impacto ambiental**

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen
egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen
gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko
indibidualizatua.*

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

**II. KAPITULUA 2. ildo: Inbertsio
berdeetarako dirulaguntzak**

**CAPÍTULO II Línea 2: Subvenciones para
inversiones verdes**

7. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen
egitatea.*

Base 7. *Hecho subvencionable.*

8. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen
gastuak.*

Base 8. *Gastos subvencionables.*

9. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko
indibidualizatua.*

Base 9. *Cuantía individualizada de las
ayudas.*

**III. KAPITULUA 3. ildo: Ingurumen-
berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko
proiektuetarako dirulaguntzak**

**CAPÍTULO III Línea 3: Subvenciones para
proyectos de innovación ambiental y
economía circular**

10. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen
egitatea.*

Base 10. *Hecho subvencionable.*

11. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen
gastuak.*

Base 11. *Gastos subvencionables.*

12. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko
indibidualizatua.*

Base 12. *Cuantía individualizada de las
ayudas.*

IV. KAPITULUA Aurrekontuko kredituak

CAPÍTULO IV Créditos presupuestarios

13. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 13. *Dotación presupuestaria.*

II. TITULUA Araubide juridikoa

TÍTULO II Régimen jurídico

14. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Base 14. *Régimen jurídico.*

15. oinarria. *Organo eskudunak eta
erakunde laguntzailea.*

Base 15. *Órganos competentes y entidad
colaboradora.*





16. oinarria. Arau-haustek eta zehapenak.

Base 16. Infracciones y sanciones.

17. oinarria. Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.

Base 17. Incumplimiento y reintegro.

18. oinarria. Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.

Base 18. Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.

III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

TÍTULO III Procedimiento de concesión

19. oinarria. Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak eta ESEPEn inskribatzea.

Base 19. Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites e inscripción en el REPPE.

20. oinarria. Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa eta interoperabilitatea.

Base 20. Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad.

21. oinarria. Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.

Base 21. Subsanción o mejora de la solicitud.

22. oinarria Dirulaguntza emateko prozedura.

Base 22. Procedimiento de concesión.

23. oinarria. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Base 23. Criterios de valoración de las solicitudes.

24. oinarria. Ebazpena.

Base 24. Resolución.

25. oinarria. Errekurtsoak.

Base 25. Recursos.

26. oinarria. Dirulaguntzari uko egitea.

Base 26. Renuncia a la subvención.

27. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.

Base 27. Modificación de la resolución de concesión.

28. oinarria. Emandako dirulaguntzen publizitatea.

Base 28. Publicidad de las subvenciones concedidas.

29. oinarria. Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.

Base 29. Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.

30. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa.

Base 30. Notificación electrónica.

IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

TÍTULO IV Ejecución, justificación y control

31. oinarria. Gauzatzeko epea.

Base 31. Plazo de ejecución.





32. oinarria. <i>Justifikazio-epea.</i>	Base 32. <i>Plazo de justificación.</i>
33. oinarria. <i>Azpikotratazioaren baldintzak.</i>	Base 33. <i>Condiciones de subcontratación.</i>
34. oinarria. <i>Dirulaguntzak justifikatzea.</i>	Base 34. <i>Justificación de las subvenciones.</i>
35. oinarria. <i>Dirulaguntza ordaintzea.</i>	Base 35. <i>Pago de la subvención.</i>
36. oinarria. <i>Laguntzak metatzea.</i>	Base 36. <i>Acumulación de ayudas.</i>
37. oinarria <i>Laguntzen bateragarritasuna.</i>	Base 37 <i>Compatibilidad de las ayudas.</i>
38. oinarria. <i>Pertsona onuradunen beste betebeharrak.</i>	Base 38. <i>Otras obligaciones de las personas beneficiarias.</i>

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*
1. Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:
- a) Bizkaiko enpresek ingurumenean duten eragina neurtu dadila bultzatzea.
- b) Bizkaiko enpresen ingurumen-inpaktu garbia murrizten laguntzen duten inbertsioak babestea.
- c) Bizkaiko enpresen ingurumen-berrikuntzako proiektuak babestea, ekonomia zirkularrarekin lerrokatuta.
- Nolanahi ere, azken helburua da enpresek lehiakortasun-posizioa hobetzea eta aztarna ekologikoa murriztea.
2. Programa hau hiru dirulaguntza ildoren bitartez gauzatuko da:

TÍTULO I

Disposiciones generales

- Base 1. *Objetivo de la subvención.*
1. Mediante este programa de subvenciones se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:
- a) impulsar la medición del impacto ambiental de las empresas de Bizkaia
- b) apoyar las inversiones que ayuden a reducir el impacto ambiental neto de las empresas de Bizkaia.
- c) apoyar proyectos de innovación ambiental, alineada con la economía circular, de las empresas de Bizkaia.
- En todo caso, el objetivo último es que las empresas mejoren su posición competitiva y reduzcan su huella ecológica.
2. La puesta en práctica de este programa se llevará a cabo a través de tres líneas de subvención:





- | | |
|--|--|
| 1. ildoak: Ingurumen-eraginaren neurketarako dirulaguntzak | Línea 1: Subvenciones para medición del impacto ambiental |
| 2. ildoak: Inbertsio berdeetarako dirulaguntzak | Línea 2: Subvenciones para inversiones verdes |
| 3. ildoak: Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako dirulaguntzak | Línea 3: Subvenciones para proyectos de innovación ambiental y economía circular |

2. oinarria. Definizioak.

Base 2. Definiciones.

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

A los efectos de las presentes bases y convocatorias se entenderá por:

a) «Enpresa»: bezeroek eskatzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo ematen dituen erakundea; jarduera horretatik etekin ekonomiko bat lortzen duena, berez nortasun juridikoa duena, hura sortu zuten, kapital soziala duten edo bertan lan egiten duten pertsonak alde batera utzita. Halakotzat hartuko dira sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, komanditako sozietate sinpleak edo akziozkoak, kooperatiba-sozietateak, mutuak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, merkataritza-forma duten sozietate zibilak, elkarren bermerako sozietateak eta interes ekonomikoko elkarteak.

a) «Empresa»: organización que se dedica a la producción o prestación de bienes o servicios que son demandados por clientes; obteniendo de esta actividad un rédito económico, que en sí misma tiene personalidad jurídica independientemente de las personas que la fundaron, poseen su capital social o desarrollan en ellas su trabajo. Se considerarán como tal las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades comanditarias simples o por acciones, sociedades cooperativas, mutuas, mutualidades de previsión social, sociedades civiles con forma mercantil, sociedades de garantía recíproca y agrupaciones de interés económico.

b) «Produktzio-zentroa»: antolamendu espezifiko duen ekoizpen-unitatea, hala alta emanda dagoena lan-agintaritzaren aurrean, lantoki bat osatzen duena Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.5 artikulua araberak.

b) «Centro productivo»: unidad productiva con organización específica, que sea dada de alta, como tal, ante la autoridad laboral, que constituye un centro de trabajo conforme al artículo 1.5 del Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

c) «Berotegi-efektuko gasak» (BEG): atmosferako gas-osagaiak, bai jatorri naturalekoak, bai giza jardueretatik sortuak, erradiazio infragorria xurgatzean eta berriro isurtzean berotegi-efektua

c) «Gases de efecto invernadero (GEI)»: componentes gaseosos de la atmósfera, tanto de origen natural como generados a partir de actividades humanas, que provocan el efecto invernadero al absorber y reemitir





eragiten dutenak. Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren esanetan, honako hauek dira klima-aldaketa eragiten dutenak, une honetan: karbono dioxidoa (CO₂), gas metanoa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O), sufre hexafluoruroa (SF₆), nitrogeno trifluoruroa (NF₃) perfluorokarbonoak (PFC) eta hidrofluorokarbonoak (HFC).

radiación infrarroja. Los reconocidos por la Convención de las Naciones Unidas sobre el Cambio Climático como contribuyentes al cambio climático son, en estos momentos: dióxido de carbono (CO₂), gas metano (CH₄), óxido nitroso (N₂O), hexafluoruro de azufre (SF₆), trifluoruro de nitrógeno (NF₃) perfluorocarbonos (PFC) e hidrofluorocarbonos (HFC).

d) «Karbono-aztarna»: erakunde, ekitaldi edo jarduera bati edo produktu edo zerbitzu baten bizi-zikloari lotutako berotegi-efektuko gasen emisio guztiak, klima-aldaketan duten eragina ebaluatzeko kuantifikatuak. Tona CO₂ baliokidetan adierazten da.

d) «Huella de carbono»: la totalidad de las emisiones de gases de efecto invernadero asociada a una organización, evento o actividad o al ciclo de vida de un producto o servicio cuantificada para evaluar su contribución al cambio climático. Se expresa en toneladas equivalentes de CO₂.

e) «Ingurumen-aztarna» edo «aztarna ekologikoa»: erakunde, ekitaldi edo jarduera bati edo produktu edo zerbitzu baten bizi-zikloari lotutako ingurumen-inpaktu guztiak, positiboak zein negatiboak izan.

e) «Huella ambiental» o «huella ecológica»: la totalidad de los impactos sobre el medio ambiente asociados a una organización, evento o actividad o al ciclo de vida de un producto o servicio, tanto si los impactos son positivos como negativos.

f) «GHG protocol» delakoa: karbono-aztarna korporatiboa kalkulatzeko estandarra, World Resources Institute (WRI) eta World Business Council for Sustainable Development (WBCSD) erakundeek garatua.

f) «GHG protocol»: estándar para el cálculo de la huella de carbono de organizaciones, desarrollado por el World Resources Institute (WRI) y el World Business Council for Sustainable Development (WBCSD).

g) «Bizi-zikloaren analisisa (BZA)»: produktu edo zerbitzu batek bere bizitzako etapa guztietan zehar —erauzketa, ekoizpena, banaketa, erabilpena eta bizi-amaiera (berrerabiltzea, birziklatzea, balorizatzea eta hondakinak/botatzekoak suntsitzea/bideratzea)— dituen ingurumen-inpaktuak ebaluatzen dituen tresna.

g) «Análisis del Ciclo de Vida (ACV)»: herramienta que evalúa los impactos ambientales de un producto o servicio durante todas las etapas de su existencia: extracción, producción, distribución, uso y fin de vida (reutilización, reciclaje, valorización y eliminación/disposición de los residuos/desechos).

h) «Produktuaren Ingurumen Adierazpena (PIA)»: produktu, material edo zerbitzu baten ingurumen-egokitasunari buruzko informazio kuantifikatua eta egiaztagarria ematen duen dokumentu edo txosten

h) «Declaración Ambiental de Producto (DAP)»: documento o informe normalizado que proporciona información cuantificada y verificable sobre el desempeño ambiental de un producto, un material o un servicio.





normalizatua.

i) «Produktu Kategoriaren Arauak (PKA)»: produktu-kategoria jakin baten Produktuaren Ingurumen Adierazpenerako betekizunak definitzen dituzten dokumentuak, produktu eta zerbitzuen nomenklaturaren Europako sisteman oinarritzen direnak. Produktuaren Ingurumen Adierazpenak egiaztatzeko zenbait programa daude, eta bakoitzak bere Produktu Kategoriaren Arauak ditu.

j) «Energia berriztagarria»: birtualki agorrezinak diren iturri naturaletatik lortutako energia. Iturri natural horiek birtualki agorrezinak dira, gai direlako baliabide naturalen bidez birsortzeko kontsumitzen diren abiaduran baino azkarrago, edo energia-kantitate handia dutelako. Energia berriztagarriak dira eguzki-energiatik, energia eolikotik, marea- edo olatu-energiatik, ur-jauzietatik, geotermiatik, materia organikotik eta abarretatik lortzen direnak.

k) «Ekonomia zirkularra»: ekoizpen- eta kontsumo-eredu bat da, gai birjinen eta energiaren kontsumoa eta kanpo-efektu negatiboak sortzea (hondakinak, isuriak...) minimizatzea eskatzen duena, haiek osatzen dituzten produktuen eta materialen bizi-zikloak hedatuz, haien erabilera optimizatuz eta produkzio-zikloan behin eta berriz sartuz. Helburua da produktuak partekatzea, berrerabiltzea, konpontzea eta berriz manufakturatzea, eta hondakinak birziklatzea, balorizatzea eta aprobetxatzea, materialak ahal den neurrian ekonomiaren barruan egon daitezen eta behin eta berriz berrerabili ahal izan daitezen. Osagarri gisa, materia eta energiaren erabilera eta hondakinen eta isurien sorrera minimizatzeko,

i) «Reglas de Categoría de Producto (RCP)»: documentos donde se definen los requisitos para la Declaración Ambiental de Producto de una determinada categoría de producto que a su vez se basan en el sistema europeo de nomenclatura de productos y servicios. Existen diversos programas de verificación de las DAPs y cada uno dispone de sus propias Reglas de Categoría de Producto.

j) «Energía renovable»: energía obtenida a partir de fuentes naturales virtualmente inagotables porque son capaces de regenerarse por medios naturales más rápido de lo que pueden consumirse o por la inmensa cantidad de energía que contienen. Son energías renovables las obtenidas a partir de energía solar, eólica, maremotriz o undimotriz, saltos de agua, geotermia, materia orgánica...

k) «Economía circular»: es un modelo de producción y consumo que implica minimizar el consumo de materias vírgenes y energía y la generación de externalidades negativas (residuos, emisiones...), mediante la extensión de los ciclos de vida de los productos y los materiales que los componen, optimizando su uso y reintroduciéndolos en el ciclo productivo una y otra vez. Persigue el uso compartido, la reutilización, reparación y remanufactura de productos, el reciclaje, valorización y aprovechamiento de residuos, para que los materiales se mantengan dentro de la economía tanto como sea posible y puedan ser reutilizados una y otra vez. Complementariamente, para minimizar la utilización de materia y energía y la generación de residuos y emisiones, incide





produktuen desmaterializazioan, prozesuen eraginkortasuna eta materia eta energia berriztagarri edo biodegradagarrien erabilera eragiten du. Ekonomia zirkularrak sistemen erresilientzia areagotzen du, kanpoko mendekotasuna minimizatuz eta ekosistemetan gutxieneko inaktuak sortuz.

l) «Teknika Erabilgarririk Onena»: jarduerak eta ustiapen-modalitateak garatzeko faserik eraginkorrena eta aurreratuena, frogatuko duena teknika jakin batzuek gaitasun praktikoa dutela isurien muga-balioen oinarria eta baimenaren beste baldintza batzuk eratzeko, isuriak eta ingurumen osoaren gaineko eragina saihesteko edo, hori praktikatu ezin denean, murrizteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/75/EB Zuzentarauan (2010eko azaroaren 24ko kutsadura kontrolari buruzkoa) ezarritakoaren arabera. Teknika erabilgarririk onenak (TEO) BREF dokumentuetan jasotzen dira. Dokumentu horietan deskribatzen dira, industria-sektore bakoitzerako, aplikatutako teknikak, ingurune guztietan gaur egun egiten diren isurketak eta kontsumo-mailak, teknika erabilgarri onenak zehazteko kontuan hartzen diren teknikak, bai eta TEOei buruzko ondorioak eta sortzen ari diren teknikak ere.

m) «Teknologia Garbien Euskal Zerrenda» azken xedetzat ingurumen-hobekuntzaren bat lortzea xede duen edozein ekipamenduk edo instalaziok osatutako zerrenda, Teknologia Garbien EAEko Zerrenda gaurkotzen eta onartzen duen 2016ko uztailaren 13koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren aginduan jasotakoaren edo hori ordezkatzeko duen araudiaren arabera.

n) «Ekodiseinua»: produktuaren edota zerbitzuaren diseinuan eta garapenean

en la desmaterialización de los productos, la eficiencia de los procesos y el empleo de materias y energías renovables o biodegradables. La economía circular aumenta la resiliencia de los sistemas al minimizar la dependencia externa y generar impactos mínimos sobre los ecosistemas.

l) «Mejor Técnica Disponible»: la fase más eficaz y avanzada de desarrollo de las actividades y de sus modalidades de explotación, que demuestren la capacidad práctica de determinadas técnicas para constituir la base de los valores límite de emisión y otras condiciones del permiso destinadas a evitar o, cuando ello no sea practicable, reducir las emisiones y el impacto en el conjunto del medio ambiente, conforme a lo establecido en la Directiva 2010/75/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 24 de noviembre de 2010, sobre las emisiones industriales (prevención y control integrados de la contaminación). Las Mejores Técnicas Disponibles (MTD) vienen recogidas en los denominados documentos BREF que describen, para cada uno de los sectores industriales, las técnicas aplicadas, las emisiones actuales a todos los medios y los niveles de consumo, las técnicas que se tienen en cuenta para determinar las MTDs, así como las conclusiones sobre las MTD y las técnicas emergentes.

m) «Listado Vasco de Tecnologías Limpias»: listado de equipos o instalaciones que tienen como fin último la obtención de la mejora ambiental recogida en la Orden de 13 de julio de 2016, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, por la que se actualiza y aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias, o normativa que la sustituya.

n) «Ecodiseño»: integración de aspectos ambientales en el diseño y desarrollo de





4. Ekonomia Sustatzeko Sailak uste badu gastuen zenbatekoa antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria zehaztu ahal izango du 34/2010 Dekretuaren 72.1 artikuluan ezarritako baliabideak aplikatuz kalkulatzeko den zenbatekoan. Arrazoitzeari, jakinarazteari eta Perituen tasazio kontraesankorra sustatzeari dagokionez, 34/2010 Dekretuaren 72. eta 73. artikuluetan adierazitakoa hartuko da kontuan.

4. Si el Departamento de Promoción Económica considera que el importe de cualquier gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá fijar la base subvencionable en la cuantía que se determine aplicando los medios establecidos en el artículo 72.1 del Decreto 34/2010. En lo relativo a la motivación, notificación y promoción de tasación pericial contradictoria se estará a lo que indican los artículos 72 y 73 del Decreto 34/2010.

5. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira eta 15.000 eurotik beherakoa, hornitze- edo zerbitzu-kontratuak badira) gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

5. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector público (en adelante Ley 9/2017), para el contrato menor (40.000 euros para contratos de obras y 15.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o de servicios), la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

6. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

6. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

7. Diruz lagun daitekeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon bat

7. La valoración del gasto subvencionable en moneda distinta al euro se convertirá a éste





erabiliz eginez gero, fakturaren ordainketa datan egingo da eurorako trukea.

al tipo de cambio de la fecha de pago de la factura.

8. Eskabidea egiten den unean gauzatu gabe dauden kanpoko gastuak eta 15.000 euro edo gehiagokoak badira (BEZik gabe) kasu honetan baino ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: laguntza eskatzeko dokumentazioarekin batera gastu horri ezarritako zenbatekoa justifikatzen duen eskaintza, kontratua edo faktura aurkezten bada.

8. Los gastos externos aún no ejecutados en el momento de la solicitud y cuyo importe sea superior o igual a 15.000 euros (IVA no incluido) sólo se considerarán gastos subvencionables cuando junto a la documentación de la solicitud de ayuda se entregue oferta, contrato o factura del gasto que justifique el importe asignado a dicho gasto.

9. 31. oinarrian ezarritako burutzeko epearen barruan (2024ko urtarrilaren 1aren eta 2025eko ekainaren 30aren bitartean, biak barne) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahalko dira diruz, beti ere 32. oinarrian ezarritako justifikatzeko epearen azken egunera arte (gauzatzeko epea bukatzen denetik hilabete bat (1)) ordainduta badaude. Kanpoko gastuetan fakturazio data hartuko da erreferentzia gisa sortzeari buruzko kontabilitate-printzipioa urratzen ez badu.

9. Se consideran subvencionables los gastos que estén devengados y facturados dentro del periodo de ejecución establecido en la base 31 (1 de enero de 2024 y hasta el 30 de junio de 2025) y abonados hasta la fecha de finalización del plazo de justificación establecido en la base 32 (un (1) mes a contar desde la finalización del plazo de ejecución). En lo relativo a los costes externos se tomará como referencia la fecha de factura siempre y cuando no vulnere el principio contable de devengo.

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatu da % 50 diruz lagun daitezkeen gastuei aplikatuz.

1. El importe de las ayudas se obtendrá de la aplicación del 50% sobre la base de gasto que se considere subvencionable.

2. Erakunde eskatzaile bakoitzeko, lagundutako eskabide bakoitzean 10.000 euro emango dira gehienez.

2. Las ayudas otorgadas por entidad solicitante en cada una de las solicitudes apoyadas, no superarán los 10.000 euros.

3. Ez da 1.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango. Muga hori ez da aplikatuko laguntzaren azken zenbatekoa 36. eta 37. oinarrietan ezarritako laguntzen metaketa eta bateragarritasun irizpideen ondorioz egindako murrizketa baten emaitza bada, edo erabilgarri dagoen kreditua agortu delako egin den

3. No se concederán ayudas inferiores a 1.000 euros. Este límite no será de aplicación cuando el importe final de la ayuda sea resultado de una reducción por aplicación de los criterios de acumulación y compatibilidad de ayudas establecidos en las bases 36 y 37 o cuando sea debida al agotamiento de la disponibilidad presupuestaria.





murritzeta baten ondorio bada.

4. Jarduketa burutzeko unea zein ere den, laguntza aurrekontuko ekitaldi bati edo hainbati esleitu ahalko zaie.

4. Independientemente del momento en el que se desarrolle la actuación, se podrá adjudicar la ayuda contra uno o varios ejercicios presupuestarios.

II. KAPITULUA

CAPÍTULO II

2. ildoak: Inbertsio berdeetarako dirulaguntzak

Línea 2: Subvenciones para inversiones verdes

7. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 7. *Hecho subvencionable.*

1. Diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira enpresen ingurumen-inpaktu negatiboa nabarmen murrizten duten inbertsioak, tipologia hauei erantzuten badiete:

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable las inversiones que reduzcan de forma sustancial el impacto ambiental negativo de las empresas, que respondan a las siguientes tipologías:

a) Autokontsumorako energia berriztagarria sortzeko instalazioak.

a) Instalaciones de generación de energía renovable para autoconsumo.

b) Egungo ekipamendu eta instalazioak egokitzea edo ordezteak energia iturri berriztagarrietatik kontsumitzen duten elementuekin.

b) Adaptación o sustitución de equipamiento e instalaciones actuales por elementos que consuman energía de fuentes renovables.

c) Egungo ekipamendu eta instalazioak egokitzea edo ordezteak, Teknologia Garbiena Euskal Zerrendaren (TGEZ) barruko teknika erabilgarri onenen arteko bat (TEO) edo zerrenda horretako beste teknologietako bat erabiltzera pasa daitezkeen.

c) Adaptación o sustitución de equipamiento e instalaciones actuales para pasar a utilizar alguna de las mejores tecnologías disponibles (MTDs) o tecnologías dentro del Listado Vasco de Tecnologías Limpias (LVTL).

d) Egungo ekipamendu eta instalazioak egokitzea edo ordezteak energia eta baliabideak modu efizienteagoan erabiltzen dituztenekin.

d) Adaptación o sustitución de equipamiento e instalaciones actuales por instalaciones de mayor eficiencia en el uso de energía y recursos.

e) Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralak ezartzea.

e) Implantación de sistemas integrales de gestión de la demanda energética.





2. Diruz laguntzeko egitatetzat hartzeko, ingurumen-inpaktua neurtzeko tipologia bakoitzeko jarduketek atal honetan adierazitako ezaugarriak bete beharko dituzte.

a) Autokontsumorako energia berriztagarria sortzeko instalazioak.

1. Honako hauek dira energia berriztagarriak sortzeko diruz lagundu daitezkeen instalazioak: eguzki-energia elektrikoa sortzekoak (fotovoltaikoa), eguzki-energia termikoa sortzekoak, energia eolikoa sortzekoak (haize-sorkuntza), geotermia aprobetxatzekoak eta jatorri berriztagarriko erregaia sortzekoak (hidrogeno berdea, biomasa, biogasa...).

2. Sortutako energiaren % 80 edo gehiago enpresaren autokontsumorako erabili beharko da.

3. Energia geotermikoaren aprobetxamenduaren kasuan, bero-ponpa bidez egiten denean, ponparen urteko batez besteko errendimenduak (SPF) 2,5etik gorakoa izan beharko du; ponpak Batzordearen 2016ko azaroaren 30eko 2016/2281 Erregelamenduan ezarritako ekodiseinu-eskakizunak bete beharko ditu —energiarekin lotutako produktuei aplikatu beharreko diseinu ekologikoko baldintzak ezartzeko esparru bat ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/CE Zuzentaraua aplikatzen du erregelamendu horrek, airea berotzeko produktuei, hozte-produktuei, tenperatura altuko prozesuetako hozte-makinei eta konbektore-haizagailuei aplikatu beharreko diseinu ekologikoko baldintzei dagokienez—, eta atmosfera berotzeko ahalmenaren balioak (ABA, 100 urtean) 675 gaintzen ez duen hozgarri bat erabili beharko du, Klima-alaketari

2. Para ser consideradas hecho subvencionable, las actuaciones en cada una de las tipologías de medición de impacto ambiental deberán reunir las características señaladas en este apartado.

a) Instalaciones de generación de energía renovable para autoconsumo.

1.º Las instalaciones de generación de energías renovable subvencionables son las de generación eléctrica solar (fotovoltaica), generación térmica solar, generación eléctrica eólica (aerogeneración), aprovechamiento de geotermia y generación de combustible de origen renovable (hidrógeno verde, biomasa, biogás...).

2.º La energía generada deberá destinarse a autoconsumo en la empresa en un porcentaje igual o superior al 80% de la energía generada.

3.º En el caso de aprovechamiento de energía geotérmica, cuando el aprovechamiento se realice mediante bomba de calor ésta deberá tener un rendimiento medio estacional (SPF) superior a 2,5; deberá cumplir con los requerimientos de ecodiseño establecidos en el Reglamento 2016/2281 de la Comisión, de 30 de noviembre de 2016, que aplica la Directiva 2009/125/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, por la que se insta un marco para el establecimiento de requisitos de diseño ecológico aplicables a los productos relacionados con la energía, en lo relativo a los requisitos de diseño ecológico aplicables a los productos de calentamiento de aire, los productos de refrigeración, las enfriadoras de procesos de alta temperatura y los ventilosconvectores; y deberá utilizar un refrigerante que no supere el valor del potencial de calentamiento atmosférico (PCA a 100 años) de 675, de acuerdo con la





buruzko Adituen Gobernu arteko Taldearen «AR4 Climate Change 2007 The Physical Science Basis» txostenaren TS.2 taularen arabera. Aerotermia eta hidrotermia aprobetxatzeko instalazioak ez dira diruz lagunduko.

4. Energia berriztagarria ekoizteko ahalmena handitzen duten instalazio berriak izan beharko dute: ez da diruz lagunduko lehendik dauden instalazioak ordezte edo berritzea.

b) Egungo ekipamendu eta instalazioak egokitzea edo ordezte energia iturri berriztagarrietatik kontsumitzen duten elementuekin.

1. Diruz lagundu ahal da gaur egun iturri berriztaezinetako energia kontsumitzen duten ekipoak ordezte edo egokitzea, ekipo berri edo egokitu horiek iturri berriztagarrietako energia kontsumitu ahal izan dezaten. Gaur egun erregai fosilak kontsumitzen dituzten prozesuen elektrifikazioa ere diruz laguntzeko modukotzat jotzen da, Espainiako sistema elektrikoan sortutako eta kontsumitutako elektrizitate gehiena iturri berriztagarrietakoa da-eta.

2. Diruz lagundu daitezke, besteak beste, erregai berriztagarri elikatutako ekipoetara aldatzea (hidrogeno berdea, biomasa, biogasa...), prozesuak elektrifikatzea (bero-ponpen, labe elektriko... bidez berotzea), energia biltegitatzeko sistemak, edo sarearen malgutasunari eta eskariaren kudeaketari lotutako sistemak, birkarga-instalazioak barne (elektrikoa, hidrogenoa...).

3. Ez da diruz lagunduko ekoizpen-instalaziotik kanpoko garraio-ibilgailuak egokitzea edo ordezte (izan turismoak zein merkataritza-ibilgailuak), baina diruz laguntzeko modukotzat jotzen da barne-garraio elementuak (orga jasotzaileak,

Tabla TS.2 del Informe «AR4 Climate Change 2007 The Physical Science Basis» de IPCC. No se considerarán subvencionables las instalaciones de aprovechamiento de aerotermia e hidrotermia.

4.º Deberán ser instalaciones nuevas que amplíen la capacidad de producción de energía renovable; no se considera subvencionable la sustitución o renovación de instalaciones existentes.

b) Adaptación o sustitución de equipamiento e instalaciones actuales por elementos que consuman energía de fuentes renovables.

1.º Será subvencionable la sustitución o adaptación de equipos que en la actualidad consuman energía de fuentes no renovables para que los nuevos equipos o los equipos adaptados puedan consumir energía de fuente renovable. Se considera que la electrificación de procesos que actualmente consumen combustibles fósiles también es subvencionable dado que la mayoría de la electricidad generada y consumida en el sistema eléctrico español es de origen renovable.

2.º Se consideran subvencionables, entre otros, el cambio a equipos alimentados por combustible renovable (hidrógeno verde, biomasa, biogás...), la electrificación de procesos (calentamiento mediante bombas de calor, hornos eléctricos...), sistemas de almacenamiento energético u otros sistemas de flexibilidad de la red y gestión de la demanda, incluyendo instalaciones de recarga (eléctrica, hidrógeno...).

3.º No será subvencionable la adaptación o sustitución de los vehículos de transporte externo a la planta productiva (turismos o vehículos comerciales), pero sí se considera subvencionable la adaptación o sustitución de los elementos de transporte interior





jasotzeko edo biltegitratzeko sistemak...) energia berriztagarriak kontsumitzen dituzten ekipoekin egokitzea edo ordeztea.

(carretillas elevadoras, sistemas de elevación o almacenamiento...) por equipos que consuman energías renovables.

4. Energia berriztagarria kontsumitu ahal izateko egokitu edo ordeztu beharreko instalazio- eta ekipo-zatia baino ez da diruz lagunduko, ez gainerako instalazioa, hura egokitu edo ordeztu egiten bada ere.

4.º Será subvencionable únicamente la parte de la instalación y los equipos que deban ser adaptados o sustituidos para poder consumir energía renovable, pero no el resto de la instalación, aunque se adapte o sustituya.

5. Ordeztu, berritu edo egokituko direnak enpresan lehendik dauden ekipamendu edo instalazioak dira. Ekoizpen-ahalmena handitzen duten elementu berriak sartzea diruz lagundu ahalko da, bakar-bakarrik, efizientziek lortzen badute energiaren eta materialen kontsumoan eta/edo hondakinen eta emisioen sorkuntzan hazkunde garbirik ez gertatzea, hasierako egoera aintzat hartuta.

5.º Deben ser sustituciones, renovaciones o adaptaciones del equipamiento o instalaciones ya existentes en la empresa. Sólo será subvencionable la incorporación de elementos nuevos que incrementen la capacidad productiva, si las eficiencias consiguen que no se produzca un incremento neto en el consumo energético y de materiales y/o la generación de residuos y emisiones respecto a la situación inicial.

c) Egungo ekipamendu eta instalazioak egokitzea edo ordeztea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren (TGEZ) barruko teknika erabilgarri onenen arteko bat (TEO) edo zerrenda horretako beste teknologietako bat erabiltzera pasa daitezen.

c) Adaptación o sustitución de equipamiento e instalaciones actuales para pasar a utilizar alguna de las mejores tecnologías disponibles (MTDs) o tecnologías dentro del Listado Vasco de Tecnologías Limpias (LVTL).

1. Diruz lagundu ahalko da ekipoak eta instalazioak egokitzea edo ordeztea TEOren bat erabili dezaten, baldin eta dagokion BREF dokumentuan adierazitako aplikazio eta sektoreetan erabiliko badira. Ez da diruz lagunduko enpresak, arauz, TEO bat erabili behar badu, teknologia hori erabilgarri badago (adibidez, industria-emisioei buruzko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauaren mende dauden enpresak).

1.º Será subvencionables la adaptación o sustitución de equipos e instalaciones para utilizar alguna MTD cuando la utilización se produzca en las aplicaciones y sectores indicados en el documento BREF correspondiente. No se considerará subvencionable cuando la empresa esté obligada normativamente a utilizar una MTD cuando esta tecnología esté disponible (por ejemplo, empresas sometidas a la Directiva 2010/75/UE, 24 de noviembre, sobre las emisiones industriales).

2. Diruz lagundu ahalko da ekipoak eta instalazioak egokitzea edo ordeztea TGEZren barruko teknologietako bat erabili dezaten, baldin eta ekipo edo instalazio horiek Ingurumen eta Lurralde

2.º Será subvencionable la adaptación o sustitución de equipos e instalaciones para utilizar alguna de las tecnologías dentro del LVTL cuando la utilización se produzca en las aplicaciones y sectores indicados en la Orden





Politikako sailburuaren 2016ko uztailaren 13ko Aginduan edo hori ordeztzen duen araudian adierazitako aplikazio eta sektoreetan erabiliko badira (Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratu eta onartu zuen aipatutako aginduak) . Tipologia horren barruan, ez dira diruz lagunduko Aginduaren eranskineko 4. apartatuan –energia– jasotako teknologiak.

3. Ordeztu, berritu edo egokituko direnak enpresan lehendik dauden ekipamendu edo instalazioak dira. Ekoizpen-ahalmena handitzen duten elementu berriak sartzea diruz lagundu ahalko da, bakar-bakarrik, efizientziek lortzen badute energiaren eta materialen kontsumoan eta/edo hondakinen eta emisioen sorkuntzan hazkunde garbirik ez gertatzea, hasierako egoera aintzat hartuta.

d) Egungo ekipamendu eta instalazioak egokitzea edo ordezteak energia eta baliabideak modu efizienteagoan erabiltzen dituztenekin.

1. Diruz lagundu ahalko da ekipo edo instalazioak egokitzea edo ordezteak ehuneko handi samar batean energiaren eta jatorri berriztaezineko lehengaien kontsumoa txikitzen, eta enpresaren ekoizpen-prozesuetan eta prozesu osagarrietan sortzen diren hondakinak eta emisioak murrizten dituztenekin. Kontsumoa edo sortutako hondakin edo emisioak murriztea diruz lagundu ahal izateko, murrizte horrek % 10ekoa izan beharko du, gutxienez, egungo prozesua oinarri hartuta eta termino erlatibotan (produktu-unitateko).

2. Honako hauek hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat, besteak beste: produkzio-ekipamendua egokitzea edo ordezteak; hondar-beroak berreskuratzea; emisioak arintzeko edo murrizteko eskemak; CO₂ atzitzea, erabiltzea eta

de 13 de julio de 2016, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, por la que se actualiza y aprueba el Listado Vasco de Tecnologías Limpias, o normativa que la sustituya. Dentro de esta tipología, no se considerarán subvencionables las tecnologías contenidas en el apartado 4 -energía- del anexo de la orden.

3.º Deben ser sustituciones, renovaciones o adaptaciones del equipamiento o instalaciones ya existente en la empresa. Sólo será subvencionable la incorporación de elementos nuevos que incrementen la capacidad productiva, si las eficiencias consiguen que no se produzca un incremento neto en el consumo energético y de materiales y/o la generación de residuos y emisiones respecto a la situación inicial.

d) Adaptación o sustitución de equipamiento e instalaciones actuales por instalaciones de mayor eficiencia en el uso de energía y recursos.

1.º Será subvencionable la adaptación o sustitución de equipos o instalaciones por otros que reduzcan el consumo de energía y materias primas de origen no renovable y la generación de residuos y emisiones en los procesos productivos y auxiliares de la empresa, en un porcentaje muy significativo. Para ser subvencionable la reducción en consumos, generación de residuos o emisiones deberá ser de al menos un 10% respecto al proceso actual en términos relativos (por unidad de producto).

2.º Se considerarán subvencionables, entre otros, la adaptación o sustitución de equipamiento productivo; la recuperación de calores residuales; los esquemas de mitigación o abatimiento de emisiones; la captura, uso y almacenamiento de CO₂; los





biltegitratzea; barne-mugikortasun bertikaleko (igogailuak...) eta horizontaleko (lekualdatzeko eta biltegitratzeko ekipamendua...) elementuak; klimatizazio- edo berotze-sistema efizienteenak...

elementos de movilidad interior vertical (ascensores...) y horizontal (equipamiento de traslado y almacenamiento...); los sistemas climatización o calefacción más eficiente...

3. Ez da diruz lagunduko luminariak aldatzea edo eraikinen inguratzaileak egokitzea edo ordeztzea (leihoak, itxiturak eta teilatua isolatzea...).

3.º No será subvencionable el cambio de luminarias o las adaptaciones o sustituciones en las envolventes de los edificios (ventanas, aislamiento de cerramientos y tejado...).

4. Ez da diruz lagunduko ekoizpen-instalaziotik kanpoko garraio-ibilgailuak (turismoak edo ibilgailu komertzialak) egokitzea edo ordeztzea.

4.º No será subvencionable la adaptación o sustitución de los vehículos de transporte externo a la planta productiva (turismos o vehículos comerciales).

5. Enpresan lehendik dauden ekipamendu edo instalazioak dira ordeztu, berritu edo egokituko direnak. Ekoizpen-ahalmena handitzen duten elementu berriak sartzea diruz lagundu ahal da, bakar-bakarrik, efizientziek lortzen badute energiaren eta materialen kontsumoan eta/edo hondakinen eta emisioen sorkuntzan hazkunde garbirik ez gertatzea, hasierako egoera aintzat hartuta.

5.º Deben ser sustituciones, renovaciones o adaptaciones del equipamiento o instalaciones ya existentes en la empresa. Sólo será subvencionable la incorporación de elementos nuevos que incrementen la capacidad productiva, si las eficiencias consiguen que no se produzca un incremento neto en el consumo energético y de materiales y/o la generación de residuos y emisiones respecto a la situación inicial.

e) Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralak ezartzea.

e) Implantación de sistemas integrales de gestión de la demanda energética.

1. Diruz laguntzeko modukotzat jotzen da energia-datuak monitorizatzeko eta kudeatzeko ekipamenduaren sistema integratua, energia gehien kontsumitzen duten ekipoak erregulatu eta kontrolatzekoa, bai eta datu monitorizatuak kudeatzea eta energia-eskariaren kudeaketa optimizazio energetiko eta ekonomikoko irizpideekin hobetzeko neurriak modu automatizatuan hartzea ahalbidetzen duen softwarea ere.

1.º Se considera subvencionable el sistema integrado de equipamiento de monitorización y gestión de datos energéticos, de regulación y control de los principales equipos consumidores de energía, así como el software que posibilite la gestión de datos monitorizados y la adopción de forma automatizada de medidas de mejora de gestión de la demanda energética con criterios de optimización energética y económica.

2. Sistemak hiru azpisistematako elementuak eduki beharko ditu: neurketa-ekipoak; erregulazio- eta kontrol-ekipoak, eta biltzeko, komunikatzeko, analisia egiteko eta jarduteko softwarea.

2.º El sistema deberá incluir elementos de tres subsistemas: equipos de medición; equipos de regulación y control; y software de recogida, comunicación, análisis y actuación. Los equipos de medición son los





Neurketa-ekipoak dira erabiltzen direnak energia kontsumitu, sortu eta biltegitratzeko ekipoen denbora errealeko edo ia errealeko kontsumo-datuak, eta energia-kontsumoarekin eta hark eragindako gastu ekonomikoarekin lotutako beste aldagai interesgarri batzuk (tenperaturak, baterien karga-maila, prezio-seinaleak...) lortzeko. Erregulazio-eta kontrol-ekipoek gai izan beharko dute dagozkien algoritmoen bidez energia kontsumitu, sortu edo biltegitratzen dituzten ekipoetan eragin, eta, hala, kontsumoak eta kostuak optimizatzen. Datuak biltzeko, komunikatzeko, aztertzeko eta ekipoetan eragiteko softwarea neurketa-, erregulazio- eta kontrol-ekipoekin integratu behar da, energia-kudeaketaren alorreko jarduketak eraginkortasunez ezarri ahal izateko.

destinados a la obtención de datos de consumo en tiempo real o casi real de los equipos consumidores, generadores y almacenadores de energía, así como la obtención de otras variables de interés relacionadas con el consumo energético y su correspondiente gasto económico (temperaturas, nivel de carga de baterías, señales de precio...). Los equipos de regulación y control deberán ser capaces, mediante los algoritmos correspondientes, de actuar sobre los equipos consumidores, generadores o almacenadores de energía para optimizar consumos y costes. El software de recogida, comunicación, análisis y actuación debe integrarse con los equipos de medición y de regulación y control para posibilitar la implementación efectiva de las actuaciones de gestión energética.

3. Instalazio berriak izan beharko dute; ez da diruz lagunduko lehendik dauden sistemak ordeztzea edo berritzea.

3.º Deberán ser instalaciones nuevas; no se considera subvencionable la sustitución o renovación de sistemas existentes.

3. Inbertsioek ingurumen-inpaktua murrizten badute hirugarrenen hondakinak edo azpiproduktuak balorizatzeagatik, inbertsio horiek diruz lagundu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, oso-osorik:

3. Cuando las inversiones produzcan reducción de impacto ambiental por valorización de residuos o subproductos de terceros, para ser consideradas subvencionables se deben cumplir las siguientes condiciones, íntegramente:

a) Laguntzek ez dituzte kutsaduraren erantzuleak zeharka askatuko legeriaren arabera jasatea dagokien karga batetik, edo enpresa-kostu normaltzat hartu behar den karga batetik.

a) Las ayudas no liberarán indirectamente a las personas responsables de la contaminación de una carga que deba ser soportada por aquellas con arreglo a la legislación, o de una carga que deba considerarse un coste empresarial normal.

b) Inbertsioaren ondorio bakarra ez da birziklatzeko materialen eskaria handitzea, material horien bilketa handitu gabe.

b) La inversión no tiene como único efecto aumentar la demanda de materiales para reciclado sin aumentar la recogida de tales materiales.

c) Inbertsioa teknikaren egungo egoeratik harago joango da.

c) La inversión irá más allá del estado actual de la técnica.

d) Hondakinen hierarkian alternatiba

d) No hay alternativas viables en un nivel





bideragarririk ez egotea, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikulua araberak: a) Prebenitzea, b) Berrerabiltzeko prestatzea, c) Birziklatzea, d) Beste balorizazio mota batzuk (adibidez, balorizazio energetikoa), eta e) Ezabaketa (adibidez, isurketa).

4. Inbertsioek eskatzen dutenean instalazioak eta ekipak ordeztzea, haien bizitza erabilgarria amaitu egin beharko da: ezingo dira berriro erabili. Maximizatu beharko da osagaien berrerabiltzea eta hondakinen tratamendua Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 8. artikuluan aurreikusitako hondakinen hierarkiaren arabera egitea. Bai obretan bai eraispenetan sortutako hondakin ez-arriskutsuen % 70, gutxienez (LER 17 05 04 kodea duten hondakinak salbu), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestatu beharko da, betelanak barne. Halaber, proiektuek eraistea badakarte, eraispen selektiboa jasoko da.

5. Diruz laguntzeko modukoak izateko, inbertsioek ingurumen-babesa areagotzea ekarri beharko dute, Europar Batasunak onartu dituen eta indarrean dauden arauetatik harago. Bestela, inbertsio horiek onartuta dauden baina oraindik indarrean ez dauden arauak betetzeko balio beharko dute (betiere, laguntzaren xede den inbertsioa Europako araua indarrean jarri baino 18 hilabete lehenago amaituta badago); edo, Europar Batasunaren araurik ezean, ingurumen-babesa moduren batean handitzea lortu beharko dute.

6. Diruz laguntzeko modukoak izateko, inbertsioek printzipio hau bete behar dute:

superior de la jerarquía de residuos según el artículo 8 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular: 1) Prevención, 2) Preparación para la reutilización, 3) Reciclado, 4) Valorización para otros fines (p. ej., valorización energética), 5) Eliminación (p. ej. vertido).

4. Cuando las inversiones exijan la sustitución de instalaciones y equipos existentes se deberá producir el fin de la vida útil de los equipos sustituidos de forma que no puedan ser reutilizados. Se deberá maximizar la reutilización de componentes y el tratamiento de los residuos conforme a la jerarquía de residuos según el artículo 8 de la Ley 7/2022, de 8 de abril, de residuos y suelos contaminados para una economía circular. Tanto en obras como en desmantelamientos, al menos el 70 % (en peso neto) de los residuos de construcción y demolición no peligrosos generados (con exclusión de los residuos con código LER 17 05 04), se deberán preparar para la reutilización, el reciclaje y la valorización, incluyendo rellenos. Análogamente, cuando los proyectos impliquen demolición, se incluirá la práctica de demolición selectiva.

5. Para ser consideradas subvencionables las inversiones deben conllevar un incremento de la protección medioambiental más allá de las normas de la Unión Europea adoptadas y en vigor, o deben servir para cumplir normas adoptadas pero que todavía no estén en vigor (siempre que la inversión objeto de ayuda esté finalizada al menos 18 meses antes de la entrada en vigor de la norma europea), o lograr cualquier incremento de la protección medioambiental en ausencia de normas de la Unión Europea.

6. Para ser consideradas subvencionables las inversiones deben cumplir con el principio de





kalte esanguratsurik (DNSH) ez eragitea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduan ezarritako ingurumen-helburuei — erregelamendu hori inbertsio jasagarriak ahalbidetzeko esparrua ezartzeari buruzkoa da, eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatu zuen—.

7. Ez dira diruz lagun daitekeen egitatearen barruan hartuko aurkeztutako proiektuaren zati nuklearrari guztiz uztartuta ez dauden edo harekin lotura gutxi edo loturarik ez duten jarduketak.

8. Dirulaguntza jasoko duten proiektuak eskabidea egin duen enpresan aplikatu eta ezartzeko modukoa izango da, enpresa bera izango da onuraduna eta bere jarduerarekiko koherentzia mantenduko da, eta soilik hartuko dira diruz laguntzeko modukotzat Bizkaiko Lurralde Historikoko ekoizpen zentroetan zuzenean aplikatzeko diren jardueren gastuak..

9. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jardura.

10. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jardura edo xede betetzea.

11. Honako proiektu hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Eranskinean jasotako epigrafeen barruan dagoen enpresaren jardueraren bati zuzenean lotuta ez dauden proiektuak.

no causar daño significativo (DNSH) a ninguno de los objetivos medioambientales establecidos en el Reglamento (UE) 2020/852 el Parlamento Europeo y del Consejo de 18 de junio de 2020, relativo al establecimiento de un marco para facilitar las inversiones sostenibles, y por el que se modifica el Reglamento (UE) 2019/2088.

7. No se considerarán parte integrante del hecho subvencionable las actuaciones que no estén plenamente vinculadas a la parte nuclear del proyecto presentado o que resulten inconexas o periféricas a ella.

8. Los proyectos objeto de subvención deberán ser de aplicación e implementación en la entidad solicitante, residiendo el beneficio de los mismos en la propia entidad y manteniendo, además la coherencia con el objeto de su actividad, considerándose subvencionables sólo los gastos de actividades con aplicación directa en los centros del Territorio Histórico de Bizkaia.

9. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 del Decreto Legislativo 1/2023.

10. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022.

11. No se considerarán como hecho subvencionable los siguientes proyectos:

a) Proyectos que no estén directamente vinculados a alguna de las actividades de la empresa que esté encuadrada dentro de los epígrafes recogidos en el Anexo.





Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, eranskinean bildutako jardueri zuzenean lotuta ez dauden proiektuak lagundu ahal izango dira diruz, eta proiektu horien erakunde eskatzaileak jo ahal izango dira onuradun, baldin eta jarduera horri dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emanda badaude, betiere dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badira. Salbuespena Ekonomia Sustapeneko sailburuaren ebazpen arrazoitu bidez emango da.

Excepcionalmente, en el caso de proyectos de notable interés, podrán ser subvencionables proyectos que no estén directamente vinculados a actividades encuadradas en el Anexo, y se podrán considerar beneficiarias las entidades solicitantes de dichos proyectos que estén dadas de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas correspondiente a dicha actividad, siempre y cuando se cumplan el resto de los requisitos establecidos en este decreto. La excepcionalidad se dictará mediante resolución motivada de la persona titular del Departamento de Promoción Económica.

b) 1. lerroan - Ingurumen-eraginaren neurketarako dirulaguntzak - diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

b) Actuaciones subvencionables en la línea 1 – Subvenciones para medición del impacto ambiental.

c) 3. lerroan - Ingurumen-berrikuntzako eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako dirulaguntzak - diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

c) Proyectos subvencionables en la línea 3 – Subvenciones para proyectos de innovación ambiental y economía circular.

d) Indarreko ingurumen-araudia betetzeko proiektuak.

d) Proyectos para el cumplimiento de la normativa ambiental en vigor.

e) Ekoizpen-instalaziotik kanpo garraiatzeko ibilgailuak ordezteko inbertsioak (autoak edo merkataritzako ibilgailuak).

e) Inversiones para sustitución de vehículos de transporte externo a la planta productiva (turismos o vehículos comerciales).

f) Eraikinak eraberritzea, eraikinen inguratzailearen isolamendua hobetzea (leihoak, itxiturak...) eta eraikinen ziurtapen energetikoa.

f) Reforma de edificios, mejora del aislamiento de la envolvente de los edificios (ventanas, cerramientos...) y certificación energética de edificios.

g) Argiteria ordezkatzeari.

g) Sustitución de luminarias.

h) Ikerketak eta azterketak.

h) Estudios y análisis.

i) Kutsatutako lurren saneamendua.

i) Saneamiento de terrenos contaminados.

j) Bizkaiko Lurralde Historikoko zentroetan aplikatu ezin diren proiektuak.

j) Proyectos que no sean de aplicación en un centro del Territorio Histórico de Bizkaia.





k) Definizioan (argitasuna, plangintza, egikaritzeko metodologia...) edo proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, giza taldea, zuzkidura ekonomikoa...) gabezia argiak dauzkaten proiektuak.

l) Bizkaiko Foru Aldundiaren bestelako programa edo jarduketa arloen barruan sar daitezkeen jarduerak.

k) Proyectos que presenten deficiencias nítidas en su definición (claridad, planificación, metodología de ejecución...) o en los recursos asignados al proyecto (medios técnicos, equipo humano, dotación económica...).

l) Las actividades que puedan estar comprendidas dentro de otros planes, programas o áreas de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

8. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

2. Honakoak izango dira diruz lagun daitezkeen gastuak, adierazitako kategorietan:

a) Ibilgetuko inbertsioek.

Ondasuna eskuratzeko gastuak lagundu ahalko dira diruz.

Dirulaguntza jaso dezakete leasing modalitatearen bidez eskuratutako aktibo finkoetako inbertsioek, betiere kontratuan ondasuna eskuratzeko konpromisoa jasotzen bada. Kasu horietan, ondasuna eskuratzeko erabilitako zenbatekoa soilik joko da diruz lagundu daitekeen gastutzat, eta ez dira inola ere onartuko finantza-errentamenduaren kontratuko baldintzak direla-bide aplikatzen diren finantza-gastuak eta komisioak.

Dirulaguntza jasotzeko, inbertsioen xede diren ondasunek baldintza hauek bete behar dituzte:

Base 8. *Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. Se considerarán subvencionables los siguientes costes, en las categorías indicadas:

a) Inversiones en inmovilizado

Se considerarán subvencionables los gastos de adquisición del bien.

Serán subvencionables las inversiones de activos materiales adquiridos mediante la modalidad de leasing, siempre y cuando el contrato incluya un compromiso para la adquisición final del bien. En esos casos, sólo se considerará subvencionable el importe correspondiente a la adquisición del bien y en ningún caso se admitirán los gastos financieros y las comisiones que apliquen en virtud de las condiciones del contrato de arrendamiento financiero.

Para ser considerados subvencionables los bienes objeto las inversiones deberán:





- | | |
|---|--|
| 1) enpresaren aktiboan gutxienez 5 urtez jarraitzea, faktura-dataz gero zenbatzen hasita. | 1.º permanecer como mínimo 5 años en el activo de la empresa a partir de la fecha de la factura; |
| 2) hirugarrenei alokatuta nahiz lagata ez egotea, kontraprestazioarekin zein kontraprestaziorik gabe. | 2.º no hallarse alquilados ni cedidos a terceros, con o sin contraprestación; |
| 3) enpresa eskatzaileak berak egindakoak ez izatea. | 3.º no haber sido fabricados por la propia empresa solicitante. |
| b) Software komertziala erabiltzeko lizentzien kostua, 12 hilabetez. | b) Costes de licencias de uso de software comercial durante 12 meses. |
| c) Diruz lagundu daitekeen inbertsiorako obra zibilak eta/edo instalazioak egitearen kostuak. | c) Costes de ejecución de las obras civiles y/o instalaciones para la inversión subvencionable. |
| d) Dauden instalazioak eraistearen kostuak. | d) Costes de desmantelamiento de las instalaciones existentes. |
| e) Proiektu edo memoria teknikoak idaztearen kostuak, zuzendaritza fakultatiboarenak, obraren eta muntaia-aren segurtasun- eta osasun-koordinazioarenak, obraren kalitate-kontrolarenak... | e) Costes de la redacción de los proyectos o memorias técnicas, los costes de la dirección facultativa, coordinación de Seguridad y Salud de la obra y montaje, control de calidad de la obra... |
| f) Instalazioak legeztatzearen eta proiektuaren faseetan behar diren lizentziak lortzearen kostuak, bai elkargo profesionalei, bai eragindako administrazioei dagozkienak. | f) Costes necesarios para la legalización de las instalaciones y la obtención de las licencias requeridas en las diferentes fases del proyecto, tanto de los colegios profesionales como de las diferentes administraciones afectadas. |
| 3. Aurreko apartatuko c), d), e) eta f) kategoriak batu, eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoa, gehienez ere, apartatu horretako a) kategorian diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren % 20 izango da. | 3. El importe subvencionable de la suma de las categorías c), d), e) y f) del apartado anterior será como máximo de un 20% del importe subvencionable de la categoría a) del apartado anterior. |
| 4. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko: | 4. No se considerarán gastos subvencionables: |
| a) Dirulaguntzaren xedea den jarduerarekin inolako inola ere identifikatu ezin diren gastuak. | a) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención. |





- | | |
|---|--|
| b) Barneko langileria-gastuak soldata gordinerako eta gizarte kargetarako. | b) Gastos internos del personal por salario bruto y cargas sociales. |
| c) 1.000 € (BEZa kenduta) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko inbertsioak. Salbuespen gisa, beste gastu batzuk onartuko dira, baldin eta haien sortzapen edo ordainketa epetan edo erlotan zatitu bada, eta adierazitako zenbatekoa baino gutxiagoko justifikazio-agiriak sortzen badituzte; horretaz gain, seriean zehar trazabilitate argia egon behar da, dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptu berari lotutako kopurua osoa 1.000 euro edo gehiago dela egiaztatzea ahalbidetzeko. | c) Inversiones externas que generen documentos justificativos de gastos inferiores a 1.000 € unitarios (IVA no incluido). Excepcionalmente, podrán admitirse gastos cuyo devengo o pago se haya fraccionado en plazos o lotes que generen documentos justificativos de importe inferior al indicado, siempre y cuando exista una trazabilidad clara e inequívoca a lo largo de la serie que permita comprobar que el importe total asociado a un mismo concepto de gasto subvencionable es superior o igual a 1.000 €. |
| d) Zergak eta tasak, BEZa barne (BEZa berreskuratu ezin den kasuetan ere bai), eta jabetza industrial babesteko prozesuei lotutako tasak kanpo utzita.. | d) Impuestos y tasas, incluyendo el IVA (incluso en los casos en los que éste no pueda ser recuperado) y excluyendo las tasas ligadas a los procesos de protección de la propiedad industrial. |
| e) Zeharkako gastuak. | e) Gastos indirectos. |
| f) Gastu orokor osagarriak, adibidez administrazio gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonía, segurtasuna, bulegoko materiala...). | f) Gastos generales suplementarios tales como gastos de administración, dietas, consumos generales (energía, agua, mensajería, correo, limpieza, telefonía, seguridad, material de oficina...). |
| g) Bidaien, otorduen eta mantenuaren gastuak. | g) Gastos de viajes, comidas y manutención. |
| h) Finantza-gastuak. | h) Gastos financieros. |
| i) Hornitzailea nor izango den adierazten ez duten inbertsioak. | i) Inversiones en los que no se indique un potencial proveedor previsto. |
| j) Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak. Ondorio horietarako, joko da lotura dagoela Sozietateen Gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikulua eta Merkataritzako Kodearen 42-49 artikuluek ezarritako kasuetan. | j) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora. Se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 42.3 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades, y los artículos 42 a 49 del Código de Comercio. |





k) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

k) Los gastos en los que hayan incurrido en sus operaciones comerciales que se hayan abonado incumpliendo los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004.

5. Ekonomia Sustatzeko Sailak uste badu gastuen zenbatekoa antzeko gastuen batez besteko kostuarekin alderatu eta gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria zehaztu ahal izango du 34/2010 Foru Dekretuaren 72.1 artikuluan ezarritako baliabideak aplikatuz kalkulatzaren zenbatekoan. Arrazoitzeari, jakinarazteari eta Perituen tasazio kontraesankorra sustatzeari dagokionez, 34/2010 Foru Dekretuaren 72. eta 73. artikuluetan adierazitakoa hartuko da kontuan.

5. Si el Departamento de Promoción Económica considera que el importe de cualquier gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá fijar la base subvencionable en la cuantía que se determine aplicando los medios establecidos en el artículo 72.1 del Decreto Foral 34/2010. En lo relativo a la motivación, notificación y promoción de tasación pericial contradictoria se estará a lo que indican los artículos 72 y 73 del Decreto Foral 34/2010.

6. Ondasun inbentariagarriak, baldin eta osorik edo zati batean dirulaguntzen bidez eskuratu, eraiki, birgaitu edo hobetu badira, dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dira, gutxienez bost urtez erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunetan, eta bi urtez gainerakoetan.

6. Los bienes inventariables cuya adquisición, construcción, rehabilitación o mejora se hubiera realizado, en todo o en parte, mediante subvenciones habrán de destinarse al fin concreto para el que se concedió la subvención durante un plazo que no será inferior a cinco años en los bienes inscribibles en un registro público y a dos años en los restantes.

7. Dena dela, diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak (40.000 eurotik beherakoa, obra-kontratuak badira eta 15.000 eurotik beherakoa, hornitze- edo zerbitzu-kontratuak badira) gainditzen dituenean, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik,

7. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector público (en adelante Ley 9/2017), para el contrato menor (40.000 euros para contratos de obras y 15.000 euros cuando se trate de contratos de suministro o de servicios), la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto





edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

8. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

9. Diruz lagun daitekeen gastuaren balorazioa euroa ez den beste txanpon bat erabiliz eginez gero, fakturaren ordainketa datan egingo da eurorako trukea.

10. Eskabidea egiten den unean gauzatu gabe dauden kanpoko gastuak eta 15.000 euro edo gehiagokoak badira (BEZik gabe) kasu honetan baino ez dira diruz lagun daitezkeen gastutzat joko: laguntza eskatzeko dokumentazioarekin batera gastu horri ezarritako zenbatekoa justifikatzen duen eskaintza, kontratua edo faktura aurkezten bada.

11. 31. oinarrian ezarritako burutzeko epearen barruan (2024ko urtarrilaren 1aren eta 2025eko ekainaren 30aren bitartean, biak barne) sortutako eta fakturatutako gastuak lagundu ahalko dira diruz, beti ere 32. oinarrian ezarritako justifikatzeko epearen azken egunera arte (gauzatzeko epea bukatzen denetik hilabete bat (1)) ordainduta badaude. Kanpoko gastuetan fakturazio data hartuko da erreferentzia gisa sortzeari buruzko kontabilitate-printzipioa urratzen ez badu.

se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

8. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

9. La valoración del gasto subvencionable en moneda distinta al euro se convertirá a éste al tipo de cambio de la fecha de pago de la factura.

10. Los gastos externos aún no ejecutados en el momento de la solicitud y cuyo importe sea superior o igual a 15.000 euros (IVA no incluido) sólo se considerarán gastos subvencionables cuando junto a la documentación de la solicitud de ayuda se entregue oferta, contrato o factura del gasto que justifique el importe asignado a dicho gasto.

de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de justificación. En el caso de existir personas trabajadoras autónomas adscritas a la empresa se aportará además por cada persona el Informe de Bases de Cotización (IBC) que incluya la cotización de alguno de los dos meses inmediatamente anteriores al de fecha de justificación. En el caso de personas adscritas a otros regímenes de cotización se aportará documentación que permita el cálculo de una base asimilada a la del régimen general de la Seguridad Social.

b) Inbertsioak Leasing bidez erosten diren kasuetan, finantza errentamenduaren kontratuaren kopia, hornitzaileak finantza erakundeari egindako fakturaren kopia eta erosteko azken aukera hondar-balioarekin burutzeko konpromisoaren agiria (baina ez da aurkeztu beharrik izango finantza errentamenduaren kontratuan islatzen bada).

b) En los casos de inversiones adquiridas mediante leasing, copia del contrato de arrendamiento financiero, copia de la factura de la entidad proveedora a la entidad financiera y un documento de compromiso de ejecución de la opción de compra final por el valor residual (no necesario en el caso de que la obligación de que la entidad beneficiaria de la ayuda adquiera el activo al término del arrendamiento financiero quede reflejada en el contrato).

c) “Langile teknologo berriak kontratatuz” gero, dirulaguntza-eskabidea egin ostean kontratatu bada, honako agiri hauek erantsi beharko dira

c) En caso de “nueva contratación de personal tecnólogo” contratado con posterioridad a la solicitud de la subvención se deberá adjuntar la siguiente documentación:

1) Enplegu-bulegoan jakinarazi edo erregistratutako lan-kontratuaren kopia (hatz-marka, data eta identifikatzailea adierazita).

1.º Copia del contrato de trabajo registrado y/o comunicado a la oficina de empleo (con la huella, fecha e identificador).

2) Langileak aurretik urtebeteko lan esperientzia duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

2.º Documentación que acredite la experiencia previa de 1 año de la persona contratada.

3) Langilearen lan-bizitza osoa.

3.º Vida laboral completa de la persona contratada.

d) Proiektuaren ondoriozko ingurumen- inpaktuaren murrizketa egiaztatzen duten kalkuluak, barnean hartuta bai proiektu aurreko neurketak, bai karbono-

d) Cálculos justificativos de la reducción de impacto ambiental debida al proyecto, incluyendo métricas pre-proyecto y estimaciones post-proyecto de la huella de





aztarnaren, sortutako hondakinen edo proiekturako garrantzitsua den beste edozein inpakturen proiektu osteko zenbatespenak (dirulaguntzaren eskaeran aurkeztutako kalkulua eguneratuta).

8. Gastuak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan frogabaliobaliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkezteko aukera ematen duten formatuetan.

9. Justifikatutako dirulaguntza kalkulatzeko, kostuak 5.2, 8.2 eta 11.2 oinarrietan jasotako kategorietan banatuko dira, hurrenez hurren, dirulaguntzen lerro bakoitzean. Proiektua justifikatzeko unean ikusten bada oinarri hauetan jasotako kostu-kategorietako batean onargarria den guztizko zenbatekoa txikiagoa dela dirulaguntza kalkulatzeko onartutako zenbatekoa baino, beste kategoria batzuetan gorako desbideratzeen bidez konpentsatu ahal izango da, kategoria bakoitzean esleitutako zenbatekoa gehienez % 20 handituta, betiere dokumentu bidez behar bezala justifikatzen bada, eta muga izango da oinarri hauetan ezarritako gastukategoria eta -tipologia bakoitzeko gehieneko dirulaguntza ez gainditzea. Kostu-kategoria bakoitzari dagozkion laguntza-portzentajeen arabera kalkulaturako dirulaguntzatik justifikatu beharreko zenbatekoari dagokionez, guztira emandako dirulaguntzaren zenbatekoa edo gehiago justifikatu behar da. Bestela, ez-betetzearen ondoriozko prozedura hasiko da.

carbono, generación de residuos o cualquier otro impacto relevante para el proyecto (actualización del cálculo presentado en la solicitud de subvención).

8. Los gastos se justificarán con facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, aportados en los formatos que permitan su presentación a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica.

9. Para el cálculo de la subvención justificada los costes se distribuirán en las categorías recogidas en las bases 5.2, 8.2 y 11.2, respectivamente, en cada línea de subvenciones. Si en el momento de la justificación del proyecto se observa que el importe total admisible en alguna de las categorías de coste recogidas en las presentes bases es inferior al importe admitido para el cálculo de la subvención, se podrá compensar mediante desviaciones al alza en otras categorías con un incremento máximo del 20% sobre el importe adjudicado en cada categoría, siempre y cuando esté debidamente justificado documentalmente, con la limitación de no superar la subvención máxima por cada categoría y tipología de gasto establecida en las presentes bases. El importe de la subvención total justificada calculada atendiendo a los porcentajes de ayuda correspondientes a cada categoría de coste deberá ser igual o superior a la subvención otorgada. En caso contrario se tramitará el correspondiente procedimiento de incumplimiento.

35. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*

Base 35. *Pago de la subvención.*





1. Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, onuradunak justifikatu ondoren eman zen jarduera, proiektua, helburua edo portaera gauzatu dela, oinarri hauetan ezarritako moduan eta justifikatutako zenbatekoan. Gehienez ere bi (2) ordainketa egingo dira.

2. Erakunde onuradunei egiten zaizkien ordainketak diruz lagun daitezkeen gastutzat jotzen diren justifikatutako gastuen proportzionalak izango dira, urteko bakoitzean ematen diren kopuruak gorabehera. Kopuru hori aldi bakoitzean eman dena baino txikiagoa izan daiteke, eta, hala badagokio, egindako gastuaren proportzionala den dirulaguntzaren azken doikuntza egin behar da.

3. Bitarteko ordainketa, halakorik badago, konturako ordainketatzat hartuko da, eta ez da beharrezkoa izango bermea eratzea ordainketa egiteko.

4. Dirulaguntza ordaindu baino lehenago, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatuko da, eta ez daudela dirua itzultzera behartzen duen ebazpen prozedura baten ondorioz zordunen artean. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna bada, ezin izango da dirulaguntza ordaindu.

5. Emandako dirulaguntza Beaz SAUren bidez ordainduko da, dirulaguntzaren eskabidean adierazitako kontu korrontera banku-transferentzia eginda.

6. Dirulaguntza kobratzeko eskubideak ezin dira laga, 34/2010 Foru Dekretuaren 68.1 artikuluan jasotako kasua gertatzen

1. El abono de la subvención se realizará previa justificación, por la persona beneficiaria, de la realización de la actividad, proyecto, objetivo o adopción del comportamiento para el que se concedió en los términos establecidos en las presentes bases y por el importe justificado. Se efectuará un máximo de dos (2) pagos.

2. Los pagos a las entidades beneficiarias serán proporcionales a los gastos justificados considerados subvencionables, independientemente de los importes otorgados en cada anualidad, pudiendo ser menor de lo otorgado en cada periodo, y en su caso, realizando el ajuste final de la subvención proporcional al gasto realizado y debidamente justificado.

3. El pago intermedio, si lo hubiere, se considerará pago a cuenta, sin que sea necesaria la constitución de garantía para su abono.

4. Antes de proceder a los pagos de la subvención se comprobará que las personas beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y que no son deudoras por resolución de procedimiento de procedencia de reintegro. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la persona beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social o por resolución de procedimiento de procedencia de reintegro, no podrá realizarse el abono de la subvención.

5. La subvención concedida se abonará a través de Beaz S.A.U. mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente que se haya designado en la solicitud de la subvención.

6. No se permite la cesión de los derechos de cobro de la subvención salvo que concurra el supuesto contemplado en el artículo 68.1 del





ez bada eta dirulaguntza kobratzeko eskubideak pignoratzeari baimentzen ez bada.

Decreto Foral 34/2010 y no se permite la pignoración de los derechos de cobro de la subvención.

36. oinarria. *Laguntzak metatzea*

Base 36. *Acumulación de ayudas.*

1. Foru-dekretu honetan jasotako dirulaguntzek honako erregelamendu honetan xedaturikoa bete behar dute: Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

1. Las subvenciones contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 2023/2831 de la Comisión de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

2. Ematen diren dirulaguntzak minimis laguntzat hartuko dira. Emandakotzat joko dira onuradunari dirulaguntza jasotzeko eskubide legala aitortzen zaion unean.

2. Las subvenciones que se concedan tendrán la consideración de ayudas minimis. Se entenderán concedidas en el momento que se reconozca a la persona beneficiaria el derecho legal a recibir la subvención.

3. Pertsona onuradun batek jaso dezakeen minimis laguntzen zenbateko osoa ezin da izan 300.000,00 eurotik gorakoa izan, hiru urteko edozein alditan.

3. La ayuda total de minimis que puede percibir una misma persona beneficiaria no podrá ser superior a 300.000,00 euros durante cualquier periodo de tres años.

4. Ez bada betetzen Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzen ezarpenari buruzkoa, horrek berekin ekar diezazkioke arau-hausleari erantzukizun penala, zibila eta administratiboa.

4. El incumplimiento del Reglamento (UE) n.º 2023/2831, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis podría conllevar responsabilidad penal, civil y administrativa para la persona infractora.

5. Foru-dekretu honen arabera emandako laguntzak beste minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzen ezarpenari buruzko 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 Erregelamenduan (EB) ezarritako gehieneko mugaraino. Laguntza horiek ez

5. Las ayudas concedidas con arreglo al presente Decreto foral podrán acumularse con otras ayudas de minimis hasta el límite máximo establecido en el Reglamento (UE) n.º 2023/2831, de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis. Estas ayudas no se





dira Estatuko ezein laguntzarekin metatuko, diruz lagun daitezkeen gastu berei dagokienez, baldin eta metatze horrek gaintitu egiten baditu Batzordeak onarturiko kategorien arabera salbuespen-erregelamendu batek edo erabaki batek kasuan kasurako finkaturiko inguruabar zehatzetarako laguntza-intentsitatea edo gehieneko laguntzaren zenbatekoa.

6. 4.8.a, 7.11.a eta 10.10.a oinarrietan aurreikusitako salbuespen-kasuetan, 2023/2831 (EB) Erregelamendua aplikatu behar ez den sektoreetarako, sektore bakoitzerako minimis erregelamendu espezifikoak aplikatuko dira, sektore horietan aurreikusitako metatze- eta bateragarritasun-mugekin.

acumularán con ninguna ayuda estatal en relación con los mismos gastos subvencionables si dicha acumulación excediera de la intensidad de ayuda o del importe de ayudas superior correspondiente fijado en las circunstancias concretas de cada caso por un reglamento de exención por categorías o una decisión adoptados por la Comisión.

6. En el caso de la excepcionalidad prevista en bases 4.8.a, 7.11.a y 10.10.a, para sectores en los que no resulta de aplicación el Reglamento (UE) n.º 2023/2831, se aplicarán los correspondientes reglamentos minimis específicos para cada sector, con los límites de acumulación y compatibilidad previstos en ellos.

37. oinarria. *Laguntzen bateragarritasuna.*

Base 37. *Compatibilidad de las ayudas.*

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin, oinarri honetan eta laguntzen metaketari buruzko aurreko oinarrian finkatutako mugak bakarrik aintzat hartuta.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiak helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gaintitu.

1. Las subvenciones del presente decreto foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin más límites que los fijados en esta base y en la base anterior relativa a la acumulación de ayudas.

2. No obstante, no serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia.

3. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.





4. Aurreko muga horietakoren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekonomia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

6. Ekonomia Sustatzeko Saila harremanetan jarri ahal izango da gainerako finantzaileekin, kofinantzaketak hitzarmen bat egin ahal izateko.

4. En caso de superarse alguno de los límites anteriores la subvención a conceder o concedida se minorará en la cantidad que corresponda al exceso.

5. Las personas beneficiarias deberán comunicar al Departamento de Promoción Económica, tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas, acompañando copia de la carta de reintegro que, en su caso, hubiera realizado. Todo ello a los efectos previstos en el artículo 18.3 y 4 de la Norma Foral 5/2005, de manera que pueda modificarse la resolución de la concesión de la subvención y, en su caso, iniciar el correspondiente procedimiento de reintegro.

6. El órgano competente del Departamento de Promoción Económica podrá contactar con el resto de las partes financiadoras para llegar a un acuerdo de cofinanciación.

38. oinarria. *Pertsona onuradunen beste betebeharrak.*

Honako betebeharrak hauek izango dituzte laguntzen onuradunek:

a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.

b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, hala badagokio, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko

Base 38. *Otras obligaciones de las personas beneficiarias.*

Las personas beneficiarias estarán obligadas a:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Justificar ante la diputada foral de Promoción Económica o ante la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o





aintzat hartutako xedea bete dela ere.

disfrute de la subvención.

c) Oinarri hauetan jasotako hedapen-
neurriak hartzea, hau da, “*Onuradunak
eman zaion dirulaguntzaren publizitatea
egitea*” izeneko oinarrian adierazitakoa
betetzea.

c) Adoptar las medidas de difusión
contenidas en las presentes bases, lo que
supone cumplir con lo indicado en la base
denominada “*Difusión de la subvención
concedida por la persona beneficiaria*”.

d) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko
Foru Aldunditik gutxienez 100.000
eurokoak diren laguntzak edo
dirulaguntzak jasotzen dituzten
erakundeak edo urteko diru-sarreraren
% 40 foru laguntzak edo dirulaguntza
publikoak direnean, baldin eta gutxienez
5.000 eurokoak badira, bete egin beharko
dituzte Bizkaiko gardentasunaren
otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko
publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau
da:

d) Las entidades privadas que durante un
ejercicio presupuestario perciban de la
Diputación Foral de Bizkaia ayudas o
subvenciones que alcancen al menos una
cuantía de 100.000 euros o cuando el 40%
del total de sus ingresos anuales tengan el
carácter de ayuda o subvención pública foral,
siempre que alcancen como mínimo 5.000
euros, deberán cumplir las obligaciones de
publicidad activa contenidas en la Norma
Foral 1/2016, de 17 de febrero, de
transparencia de Bizkaia, lo que supone:

1) Aurretik aipatutako mugak gainditu eta
hurrengo urtetik aurrera webgunean
informazio publiko garrantzitsua
argitaratzea modu irigarrian, doan, egiaz,
eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan.
Datu pertsonalak babestearen arloko
legeria errespetatuko da eta euskaldunen
hizkuntz eskubideak bermatuko dira.
Horretarako, informazioa euskaraz eta
gaztelaniaz argitaratuko da.

1.º Publicar, a partir del año siguiente en el
que se hayan superado los umbrales
mencionados con anterioridad, información
pública relevante en su página web de forma
accesible, gratuita, veraz, actualizada y
reutilizable. Se respetará la legislación en
materia de protección de datos personales y
se garantizarán los derechos lingüísticos de
la ciudadanía vasca debiendo publicarse
dicha información tanto en euskera como en
castellano.

2) Informazioa eguneratuta mantentzea
gutxienez lau urte naturalen.

2.º Mantenerse publicada dicha información,
debidamente actualizada, durante al menos
cuatro años naturales.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi
hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza
ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen
dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru
Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan
ezarritakoarekin bat. Hau da:

e) Utilizar las dos lenguas cooficiales de la
Comunidad Autónoma Vasca de acuerdo con
lo establecido en el artículo 13.3 y 13.4 del
Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por
el que se establecen los criterios de uso de las
lenguas oficiales, lo que supone:

1) Diruz lagundutako jarduera publiko
guztietan bi hizkuntza koofizialak
erabiltzea.

1.º Utilizar las dos lenguas cooficiales en
todas las actividades públicas resultantes de
la actividad subvencionada.





2) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.

f) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrek hauxe esan nahi du:

1) Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.

2) Egiaztatzea Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak sustatzen direla eta gardentasun eta ordainsari berdintasun printzipioa betetzen dela.

3) Egiaztatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta

2.º Utilizar las dos lenguas cooficiales en los materiales, publicaciones o cualquier otro soporte utilizado relacionado con la actividad subvencionada.

f) Incorporar la perspectiva de género y promover la igualdad de mujeres y hombres de acuerdo con lo establecido en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, lo que supone:

1.º Acreditar que en sus actuaciones se cumplen los principios generales señalados en el artículo 3 del Decreto Legislativo 1/2023, que en los estudios y estadísticas que realicen se cumple con lo dispuesto en el art. 16 de la citada ley y que se realiza un uso no sexista en todo tipo de lenguaje, imágenes, soportes y documentos que produzca directamente o a través de terceras personas.

2.º Acreditar que se promueve la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias y que se cumple con el principio de transparencia e igualdad retributiva.

3.º Acreditar que se vela porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad,





generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.

4) Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasun Plana edukitzera behartuta dauden erakundeek kasuan, plan hori badutela eta benetan aplikatzen dela egiaztatzea.

5) Egiaztatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.

g) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea — egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia—, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, bai eta kontabilitate orri eta erregistro espezifiko guztiak edukitzea ere diruz lagundutako proiektuari dagozkion diru-sarrerak eta gastuak bereiz identifikatu ahal izateko, dela kontabilitateko sistema berezi baten bidez, dela proiektuarekin lotutako transakzio guztietarako kontabilitateko kode egoki bat esleitzuz, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.

h) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan

corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

4.º En el caso de entidades obligadas a disponer de un Plan de Igualdad previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, acreditar que se dispone de dicho Plan, así como de su aplicación efectiva.

5.º Acreditar que se garantiza la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

g) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos que permitan la identificación separada de los ingresos y gastos correspondientes al proyecto subvencionado, bien mediante un sistema de contabilidad aparte bien asignando un código contable adecuado a todas las transacciones relacionadas con el proyecto, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones





daitezkeen neurrian.

de comprobación y control.

i) Foru arau honen 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005.

j) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.

j) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiera sido tomada en cuenta para la concesión de la subvención.

k) Foru Administrazioako organoek edo erakunde laguntzaileak eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrolako eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:

k) Prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral o por la entidad colaboradora, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero, a cuyo fin tendrán las siguientes facultades:

1) Egiartzatu beharreko agirietara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.

1.º El libre acceso a la documentación objeto de comprobación, incluidos los programas y archivos en soportes informáticos.

2) Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregulartasuna egiaztatzeko aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.

2.º El libre acceso a los locales de negocio y demás establecimientos o lugares en que se desarrolle la actividad subvencionada o se permita verificar la realidad y regularidad de las operaciones financiadas con cargo a la subvención.

3) Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.

3.º La obtención de copia o la retención de las facturas, documentos equivalentes o sustitutivos y de cualquier otro documento relativo a las operaciones en las que se deduzcan indicios de la incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención.

4) Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.

4.º El libre acceso a información de las cuentas bancarias en las entidades financieras donde se pueda haber efectuado el cobro de las subvenciones o con cargo a las cuales se puedan haber realizado las disposiciones de los fondos.





Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziazat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala badagokio, zehapenen kalterik gabe.

l) Emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea eta justifikazio dokumentazioa ematea. Laguntzen ez bada eta dokumentazioa ematen ez bada, urratu egingo dira 5/2005 Foru Arauaren 33.1.f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako ezarritako betebeharrak.

m) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.

n) Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardueraren eragina ebaluatzeko, sail horrek enpresari proiektuak iraun bitartean zein proiektu amaitu eta osteko hiru (3) urteetan enpresaren bilakaera adierazten duten adierazle ekonomikoak eta enpleguari buruzko adierazleak nahiz proiektuak enpresan izandako eraginari buruzkoak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Adierazle horiek aurkezteko epea, eskatzen zaizkion unean zehaztuko da.

La negativa al cumplimiento de esta obligación de prestar colaboración y facilitar documentación se considerará resistencia, excusa, obstrucción o negativa a los efectos previstos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, sin perjuicio de las sanciones que, en su caso, pudieran corresponder.

l) Someterse a las actuaciones de comprobación del cumplimiento de las obligaciones relacionadas con la igualdad de género entre mujeres y hombres y facilitar la documentación justificativa. La negativa a prestar la colaboración y facilitar documentación se considerará incumplimiento de las obligaciones impuestas a los efectos de lo indicado en el artículo 33.1.f) de la Norma Foral 5/2005.

m) No incurrir en deslocalización empresarial, entendiendo por tal lo prevenido en la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo, de Recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de Deslocalizaciones Empresariales, que será aplicable a las subvenciones reguladas por el presente decreto foral.

n) Para la evaluación del impacto de la actividad del Departamento de Promoción Económica, éste podrá requerir a la empresa durante el proyecto y los tres (3) ejercicios posteriores a la finalización del mismo la aportación de indicadores económicos y de empleo de la evolución de la empresa y del impacto del proyecto en la misma, que deberá aportar en el plazo que se le especifique en el momento en el que le sea requerida.

ERANSKINA

Jarduera ekonomikoen zerrenda

3. oinarrian adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen

ANEXO

Relación de actividades económicas

De acuerdo con lo indicado en la base 3, uno de los requisitos que deben cumplir las





artean, enpresek EJSN - 2009ko epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomikoetako bat. Halaber, 4., 7. eta 10. oinarriek adierazten dute ez daitekeela diruz lagundu eranskin honetan jasotako epigrafeen barruan dagoen enpresaren jardueraren bati zuzenean lotuta ez dauden proiektuak.

empresas para ser beneficiarias es que al menos una de sus actividades se halle encuadrada en alguno de los siguientes epígrafes de la CNAE – 2009. Así mismo, las bases 4, 7 y 10 indican que no serán subvencionables proyectos que no estén directamente vinculados a alguna de las actividades de la empresa que esté encuadrada dentro de los epígrafes recogidos en este anexo.

B atala: Erauzketako industriak

Sección B: Industrias extractivas

C atala: Manufaktura-industria

Sección C: Industria manufacturera

D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornitura

Sección D: Suministro de energía eléctrica, gas, vapor y aire acondicionado

E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa

Sección E: Suministro de agua, actividades de saneamiento, gestión de residuos y descontaminación

F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):

Sección F: Construcción (excepto el grupo señalado):

41.1. taldea. Higiezinaren sustapena

Grupo 41.1. Promoción inmobiliaria

G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):

Sección G: Comercio al por mayor y al por menor; reparación de vehículos de motor y motocicletas (excepto la división señalada):

47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.

División 47. Comercio al por menor, excepto de vehículos de motor y motocicletas

H atala: Garraioa eta biltegiatzea

Sección H: Transporte y almacenamiento

I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):

Sección I: Hostelería (excepto el grupo señalado):

56.3. taldea. Edaritegiak

Grupo 56.3. Establecimientos de bebidas

J atala: Informazioa eta komunikazioak

Sección J: Información y comunicaciones

M atala: Jarduera profesionalak, zientifiko eta teknikoak

Sección M: Actividades profesionales, científicas y técnicas





N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):	Sección N: Actividades administrativas y servicios auxiliares (excepto la división señalada):
80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.	División 80. Actividades de seguridad e investigación
P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):	Sección P: Educación (sólo la división señalada):
85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak	División 85.6. Actividades auxiliares a la educación
Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):	Sección Q: Actividades sanitarias y de servicios sociales (sólo las divisiones señaladas):
87. multzoa. Egoitzetako laguntza	División 87. Asistencia en establecimientos residenciales
88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak	División 88. Actividades de servicios sociales sin alojamiento
R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):	Sección R: Actividades artísticas, recreativas y de entretenimiento (sólo las divisiones y grupo señaladas):
90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak	División 90: Actividades de creación, artísticas y espectáculos
91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk	División 91: Actividades de bibliotecas, archivos, museos y otras actividades culturales
93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak	Grupo 93.2: Actividades recreativas y de entretenimiento
S atala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):	Sección S: Otras actividades (sólo la división señalada):
95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.	División 95. Reparación de ordenadores, efectos personales y artículos de uso doméstico.

